

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

3372

EBAZPENA, 2023ko ekainaren 26koa, Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariarena, zeinaren bidez izendatzen baitira irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek ingurumen-boluntariotzako proiektuak gara ditzaten ematen zaizkien dirulaguntzak ebazteko kide anitzeko ebaluazio-organoko kideak.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 7ko Aginduak, EAE ingurumen-boluntariotzako proiektuak burutzen dituzten irabazte-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta laguntzen deialdia egiten duena, honako hau ezartzen du 13. artikuluan: aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, kide anitzeko ebaluazio-organo bat eratuko da (balorazio-batzordea), honela osatua: Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendaria, izango da burua; eta Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzako bi teknikari izango dira kideak, zuzendariak izendatutakoak. Bietatik, zerbitzuan antzintasun handiagoa duena izango da idazkaria.

Azaldutakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek ingurumen-boluntariotzako proiektuak gara ditzaten ematen zaizkien dirulaguntzak ebazteko ardura izango duen kide anitzeko organoko kide izendatzea honako hauek:

Lehendakaria:

Adolfo Uriarte Villalba, Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendaria.

Kideak:

Aitana Martinez de Morentin Jurado, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzako teknikaria.

Saioa Torres Zurutuza, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzako teknikaria, idazkaria izango baita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 26a.

Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendaria,
ADOLFO URIARTE VILLALBA.